



Galindo kaleratu izana gaitzetsi dute Lasa eta Zabalaren urteurrenean

HOGEITA BAT ▶ Lasa eta Zabala tolosarrak orain hogeita bat urte bahitu, torturatu eta erahil zituzten

OTEGI ▶ Batasuneko kidearen hitzetan, Alderdi Sozialista estatu itun askorekin hipotekatuta dago ▶ 7

TOLOSA ▶

Dominguez, Realekoen aholkulari lanetan

Nesken taldea mailaz igotzea du helburu entrenatzaileak ▶ 5

TOLOSA ▶



NOELIA LATABURU

Aitor Vitoriak «ilun» ikusten du euskal zinemagintza

'Aupa Etxebeste'-n jardun du zuzendari laguntzaile gisa ▶ 4

LIZARTZA ▶

Udalari intsumisia egiteko dio Axurdariok

Ur eta zabor zerga ez dute ordainduko ▶ 7



Aterkipean, laurehun bat lagunek egin zuten protesta atzo arratsaldean, Triangulotik abiatuta, Lasa eta Zabalaren erahilketak gaitzesteko. I GARCIA



LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpefik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - TOLOSA
Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
Bidasoa, 9 behe -ORERETA- ERRENTERIA
Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41
www.landarri.com • landarris.l@terra.es

TXEMA GARCES ▶ MUSIKARIA

«Moldaketak egitean, musikak zerikusia behar du izan letrarekin»

Baxujole tolosarrak Imanolen sehaska kantuak grabatu ditu moldatuta ▶ 2,3



UZTURRETIK ▶
KRISTINA URRUTIA

Hemendik aurrera, oinez

Aste honetan Uzturretik Eguzkizko Muñoara —Leitzako mendirik altuenera— egin dugu salto. Hogei kilometroko aldea besterik ez dago bi herrien artean —Tolosaren eta Leitzaren artean, hain zuzen ere—, baina izerdi patsetan egin dugu bidea. Leher eginda bukatu dugu, baina ez zaigu sosik ere kostatu, oinez egin baitugu ibilbide guztia. Beste kontu bat litzateke, ordea, kotxez egin izan bagenu, posible ez dela jakin arren. Izan ere, diru franko ordaindu beharko genuke joan-etorria.

Honezkerok zuek ere ederki somatu izan du zuzen bezala, ez da broma gasolinarekin. Aste honetan petrolioaren prezioak gailurra jo du eta sekulan baino garestiago dago. Gasolina litro batek euro bat balio du, lehengo 170 pezeta alajaina! Martxa honetan luxua bihurtuko da kotxezko depositua betetzea ere!

Eta jada kezkatzen hasita nago, ez baitiot berehalako irtenbiderik ikusten arazo beltz honi. Bien bitartean gorakada historiko honen errudunak, euren buruak zuritzen dihardute; petrolio esportatzaileek ez dutela erreka gehiago produzitzetik, langileak greban hasi direla Nigerian...eta aitzakia bat bestearen atzetik.

Baina honek, beti bezala, hiritarren eragiten du bete-betean. Zure eta nire poltsikoei astinaldi ederra hartu behar dute, baita kontu korronteek ere. Lagun batek dioen bezala, gorriak ikusi behar ditugu hemendik aurrera.

Argi dago tentu handiz ibili beharra dagoela. Norberak hartuko dio egoera honi neurria, baina nik, badaezpada, igande hau oinez egiteko gonbitea luzatzen dizuet denei. Gasolinan aurreztuko dugun diruarekin egun-pasa bikaina eginen baitugu nonahi, Lizarran esaterako.

GUTUN@K ▶



Abaltzisketako alkatearen hautaketa

2004ko urriaren 3an, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN 421. zenbakian Abaltzisketako alkateak egin zituen adierazpenak ez ziren zuzenak. Egingo diren adierazpen horien ondorioz min hartutako pertsona naiz, eta baita zinegotzi kidea ere. Lehendabizi, esaten duzun bezala, gure artean konfiantza eta giroa badago, ez zaitez saiatu giro hori aldatzen horrelako adierazpenak eginez.

Sei ez, baina zazpi zinegotzi gara alkatea barne. Egia da inork ez zuela nahi alkate izateko ardura, zeren eta herri hauetan gehienetan alkatearengana etortzen baitira kontsulta gehienak eta denbora behar da horretarako, eta udalkideek zioten «nik behintzat laneko ordurik ez diat galduko oso behar-beharrean ez dela, horko biletarera joateagatik lan ordurik

aparte ez bada eta lantokian ere ez ziguk utziko behar-bada». Ni, halamoduzko egoeran nengoelako prestatu nintzen soldata baten truke inguruko herrien adibidea ikusita eta nola funtzionatzen zuen ere bai, eta gonbidatu nituen (enteratzea); baita ere esaten nuen herrietan egiten diren obrak eta gainerrako ekimenak segimena behar zutelara, bestela askotan aurrekontuak motz gelditzen direla eta horrela zerbait aurreratu litekeela dirua beste gastu batzuetarako.

Aurrenetik nire jornal eskaera altuagoa izanik eta eztabaida ondoren adostu nuen egunean hiru ordu sarzera Udaleko lanetan, hamar euro orduko kobratuz, orduetgia malgua zen herrian ez bazen bileretan sartuko ziren orduak; baita esan behar dut ez nuela eskatu seguritate sozialik ez oporrik ez eta primarik, eta abuztuan jai egingo nuela. Hartara, besteek lanordua gutxiago galduko zituztela, eta baita

ere adostu zen edozein udal-kidek lanetik galdutako orduak 10 eurotan kobratzekotan justifikatutako orduak, alegia, ez noski astero udal-txean egindako bilerak. Alkatea aukeratzeko bozketan, gaurko alkatea dena eta beste zinegotzi batek aurkako botoa eman zidaten, udal-txe honetan egunean bateko adina lan ez zegoela argudiatuz, baina bat falta zenez, beste hiru botoekin alkate izateko izendatu ninduten. Alkate hautatzeko handik egun batzuetara Udaleko udalbatzarretik nola pasatu behar den, hautatzeko aurreko momentuan esan nien nire udalkideei, ikusita zer nolako giroan aukeratua izan nintzen aukera ematen niela berriro hautaketa hasiteko, jorنالیک gabeko alkatea hautatzeko.

Orduan aitatu zen boto sekretuz aukeratzeko; modalitate honetan galdetu nion idazkariari ezezkorik esaterik ba al nuen, zeren eta lehen bes-

te bi zinegotzi bazirelako alkate izateari uko egin ziotenak, eta esan zidan baietz, baneukala ezetz esatea, orduan boto sekretuari ezezkoa eman nion nire burua hautatua ikusten nuelako. Orduan, boto sekretua atzera bota zen. Gero, zozketa bidezko hautaketa. Lehen esan bezala, bi kide bazterrean gelditzen ziren, eta galdetu zidaten zozketa bidezko hautaketari zer esaten nion eta nire erantzuna izan zen baietz; jorنالیک gabeko alkate izateko hautaketa horretan parte hartzen nuela (ez nuen berezia izan nahi).

Zozketa egin zen eta Argitxuren izena atera zen. Garbi azalduz gero, ondo ulertzen da. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA irakurri zuen batek zera esan zidan: «Adiskide, hori duk politikari egitea; ez hirea». Eta erantzun nion: «Ez diat uste; munduan libre ibiltzea eta gaztea izatea, bai-zik».

LUIS OLANO ▶ ABALTZISKETAKO
ZINEGOTZIA

TXEMA GARCES ▶ MUSIKARIA

«Letrak ez duenean ezer esaten, musikak ere ez du ezer esaten»

Imanolen sehaska kanten moldaketak egin eta grabatu berri ditu; Jabier Muguruza, Xabier Lete eta beste hainbat abeslarirekin egin du lan; etorkizuna beltza ikusten du

JOXEMI SAIZAR

Fermin Muguruzaren Kortaturren *Txema el bajo* abestiaren protagonista da. Sosegu hitzez definitu zuen duela hamar urte bere lagun Imanol abeslariari *Galtzaundin*. Haren heriotzaren ondoren, uda animoz baxu pasatu ondoren, aurkitu dugu Txema Garces baxujolea.

Imanolen sehaska kantak grabatu berri dituzue.

Duela hiruzpalau urteko proiektua zen, baina utzita zuten. Hona itzultzeko aitzakia izan zen, baina gaixotu egin zen. Ekainean hil ondoren, animoz ez nengoen ondo. Orain hartu eta egin dugu. Moldaketak nireak dira. Durangorako egongo da kalean.

Noiz ezagutu zenuen?

Duela 20 urte. Shanti tabernaren aldeko jaialdian esaten zuen berak, baina lehenago bilera bat izan genuen. Batera jarraitu dugu eta azken zortzi urteotan bere moldaketaz arduratu naiz. Urtebetez batera bizitu ginen, gainera.

Oso eztabaidatua izan da.

Zurrumbilo batean sartu zuten. Euskal Herriatik alde egin behar izan zuela esan zuten telebistek, baina ez zen horrela izan. Hil ondoren lagun asko atera zaizkio. Asko eztabaidatu dut honetaz azken hilabeteotan. Batzuk santifikatu egin nahi dute, lau urte hemendik kanpora bizitu zelako eta beste batzuk hainbesterako ez zela izan ikusarazi nahi dute. Ez bata eta

ez bestea. Angustia pixka batekin bizi zen hemen, baina zen egun alde egin.

Nola hasi zinen baxuarekin?

Kaia berbera taldean. Berastegin entsatzen genuen. Hilabete batzuk bakarrik egin nituen. Gero Tolosan Juanma Ugarte, Txabi Abrego, Iñaki Ruiz, Javier Arrillaga eta horiekin. Berberak egiten ere hasi ginen, baina kalejira bat jartzeko gai ere ez ginen. Behin, Gorosabelen, gazteen dantzaldi batean, harrika atera gintuzten.

Nola sortu zen 'Txema el bajo' abestia?

Euskaltegian ikasten ari nintzela abesti baterako hitza prestatu behar nuen. Inauteriaz hitz egiten zuen letra egin nuen. Fermin eta Jabier Mugu-

ruzarekin eta Esteban Albisuarekin ari nintzen orduan talde batean eta jo genuen. Gero Ferminek letra aldatu zion, gaztelaniaz jarri eta Kortaturekin jo zuten.

Denetik jo behar izan duzu: berberak, jazz, euskal abeslariarekin...

Gauza txiki eta pertsonalak gustatzen zaizkit. Kontzertuak gauza bakarra dira, egun horretan horrela ateratzen dira: horren gaizki, horren ondo, horren gustura, soinu horrekin, argi horiekin...

Musikatik bizitzen saiatu zara beti.

Saiatu bai, baina oso zaila da. Inork ez du lortu hemen. Irakaskuntzan edo beste zerbaitean aritu behar duzu. Gurasoen liburudendagatik ez balitz, ezinezkoa litzateke horrela ibiltzea.

Telebistak ez du ematen?

Irudi hutsa da. Bi egunetan dozena bat kanta grabatu eta urte osoan telebistan zaude, baina bi egun kobratuta.

Eta disketeek?

Disko batean baxua jotzeagatik gehien kobratu dudana 17.000 pezeta izan da.

Egoera hobea al da kanpoan?

Hemengo musikari asko Barzelonara joan da. Interes handiagoa jartzen dute, baita antolatzaileek ere. Teklatuarekin jotzea ez zaie buruan sartzen,

IRITZIA ▶ ONINTZA LASA (TOLOSAKO EA-KO ZINEGOTZIA)

Tolosako kultur erronkak

Antzinatek datorkio Tolosari bere kultur zaletasuna, eta horren lekuko kultur arloan, musika, zein literatur esparruan zeresana izan duten entzute handiko tolosarrak.

Berez kulturarekiko doai bereziki pertsonak jaiotzen badira ere, garrantzitsua da kulturzaletasun eta gaitasun hori babestu eta sustatuko duen azpiegitura egokiak izatea. Izan eta hobetzea.

Helburu hori gogoan, datorren martxo ingururako Tolosako Udalak azpiegitura Plan berri bat eraman asmo du. Ekintza guztiak garrantzitsuak izanik ere, badira azpimarragai diren batzuk.

Liburutegi zentralizatu egoki bat ahalbideratzearena, esaterako. Erronka garrantzitsua, apustu ausarta, eta era berean, informazioaren ga-

rai hauetan behar-beharrezkoa, tolosarrek eskaintza duin bat izan dezaten ingurune egoki batean.

Ideia hau egungo Aranburu Jauregiko eraikinean kokatu nahi da, eta baita, eraikitzen ari den Errotan ere. Asmoak ugariak izanik ere, helduen liburutegia handitzea ere aztergai daukagu.

Planteamendu erabat berritzaile honen baitan bada beste hainbat gogoeta ere, prezioen berrikusketa, ordutegiak zabaltzeko aukera, Aranburu Jauregia eta errota ingurunearen suspertzea... Hau da, kultur gune txukun eta moderno bat sortzea, kultur txokoa izango dena, txoko erakargarri bat bihurtu asmotan.

Tolosak oso bere duen beste eraikin bat Leidor zinema da. Zinema saioak, zine-kluba, antzerkigintza,

abesbatzak eta hainbat eta hainbat kultur ekimen bertan egiteagatik eta batez ere Abesbatzen gune izateagatik tolosarrendandik ez ezik, Euskal Herri eta munduan zehar ere ezagun dena.

Birgaitze lanak Udalen honen egiteko bat dira, eta orain artean, beharren azterketa edo plangintza bat egin da. Nolabait esatearren, Leidorren egoeraren diagnostikoa, zeinak heldu beharrek lanei buruzko datuak argituko dituen.

Lan honen ondorioz ikusi izan diren puntu batzuk aipatzearen akustikaren gaia azpimarratuko nuke. Akustika ez da Leidorrek jasotzen dituen ekintzetarako behar bezain ona. Akustika gaietan, beraz, gabezi bat dagoela agertu da. Aretoaren aforak orain arte bezalakoa edo antzekoa izaten jarraitu behar duela ere baloratzen da, jardunaldi garrantzitsuek jende multzo handiak biltzen dituztela nabaria baita. Gauza bera oholtzari dagokionean ere.

Lehen pausoa eman delarik, Leidor birgaitze lanen bukaera legealdi honen amaierarako aurreikusten da.

Tolosak duen luxu edo altxor bat izanik, azpiegitura hori mantendu eta hobetu egin behar da.

Txotxongiloak ere Tolosako kultur ekintzetan ez dira hutsaren hurrengo. Aitzitik, nazioarte mailako herri askotako ordezkartza etortzen da gure herrira, eta haur zein helduentzako ikuskizunetan maila handiko lanak ezagutzeko aukera izan dugu. Hau honela izanik, modalitate artistiko eta kultural hau garatzeko behar duen azpiegitura sortzearen alde ere ari gara, bide batez, formato txiki zein ertaineko ekintzak sustatzeko ere baliagarri izan daitekeen eraikin bakarra sustatzeko erabilgarri izango dena.

Tolosako Abesbatzen aparteko kalitatea, tolosarren kultura maila eta abar luze bat aipa daiteke, eta horrek, ezinbestean, hasierako gogoetara garamatza; Tolosak merezi duela kultur azpiegitura eta eskaintza egoki bat, erreferente izango dena, alegia.

Aprobetxa dezadan, bidenabar, hastear dagoen Abesbatzetan izango ditugun ahots apartak entzuteko gonbitea luzatzeko.

KULTUR GUNEA

«Planteamendu erabat berritzaile honen baitan bada beste hainbat gogoeta ere; kultur gune txukun eta moderno bat sortzea, kultur txokoa izango dena, txoko erakargarri bat bihurtu asmotan»

PERTSONALKI ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1960ko apirilaren 13an ▶ Magisteritza ikasi zuen ▶ Musikarekin batera, hainbat lanetan aritu da: bulego batean, Jazzlen irakasle, baina batez ere gurasoen liburudendan

Musika estilo bat? Nahastua, abestia eta jazz. **Kontzertu bat?** Xabier Leteren azkena, hunkituta bukatu genuen denok. **Entzuteko?** Jazz, laukoteak, Kenny Kirkland. **Baxujole bat?** Mark Johnson. **Hemengo abeslari bat?** Imanol, askogatik.

IMANOL

«Zurrumbilo batean sartu zuten; Euskal Herritik alde egin behar izan zuela esan zuten telebistek, baina ez zen horrela izan»



pianoa jartzen dute gehienetan. Kontzeptu akustikoa dute. **Duela hamar urte 'Galtzaundi'-n etorkizuna beltz ikusten zenuen.**

Berdin edo okerrago ikusten jarraitzen dut. Uda honetan, Imanol hil ondoren, gauzak eta pentsakera asko aldatu zaizkit. Proiektu bat badaukat, baina zaila ikusten dut musikarekin jarraitzea.

Zer iruditzen zaizu 'Operacion Triunfo'?

Inoiz ez naiz oso korporatibista izan. Sinatu dudana gauza bakarrenetako *Operacion Triunfo*ren aurkako manifestu bat izan da. Patua izan da, en-

tzumenerako ere bai, kulturarentzat orokorrean. Letrak ez duenean ezer esaten musikak ere ez du ezer esaten.

Moldaketak egiten dituzu. Nolako lana izaten da?

Musikak letrarekin zerikusia behar du izan. Gero, abeslariaren mundu pertsonala ezagutzen saiatzen naiz, moldaketak zentzua izateko. Disko batean garrantzi handia du: sonoritza erabakitzen du. Ondoren, musikariak bere zatia dauka.

Zer da musika egitea?

Beste musikariarekin zerbait konpartitzea, ondo pasatzea, zerbait gertatzea jotzen ari zarenarean, arrazoi bat izatea...



JOXEMI SAIZAR

ZINEMA ▶

Bat, bi, hiru... filmatzen!

Amaitu berri den 'Aupa Etxebeste' filmaren filmaketan murgilduta egon ostean, datorren urtearekin sortuko diren proiektu berrien zain dago Aitor Vitoria

NOELIA LATABURU

Tolosarra izatez, atzerrian zehar ibili da Aitor Vitoria, hemezortzi urte zituela Andoainen irudi eta soinu modulua ikastea erabaki zuenetik. Bere bizilekua Hondarribian finkaturik duen arren, Madril, Galizia eta Kuba artean eman ditu lanbidean darma-tzan azken hamabost urteak.

Betidnik zazpigarren artearen ganako erakarpena sentitu izan duen arren, motibazio bezirik gabe aukeratu zuen bere lanbidea. Orain, bere karre-aztertzerakoan, pozik agertzen da bere erabakiarekin. «Oso gustura nago hautatu du-dan bizimoduarekin, eta ez nuke aldatuko», aitortu du teknikariak. Gainera, lanbide hone-tan adi egon behar dela eta aukerak ondo hartzen jakin behar dela esan du Vitoriak. «Aupa Etxebeste hasi aurretik sei hilabetez egon naiz esku hutsik; baina nire lana gustuko dut eta itxaroten ere jakin behar da», azaldu du Vitoriak.

Behin ikasketak burututa, Kubara joan zen urtebetez lan egin eta bere ikasketak zabalteko helburuarekin. Bertan, bere bizitzako aukera eskaini zioten, izan ere, *Maité* filmaren zuzendariak ezagutu zituen eta beraiekin lan egiteko proposa-mena egin zioten. Ez zen hau, dena den, bere lehenbiziko lana, aurretik ezkontzei buruzko erreportaiak egin baitzituen eta kamara aske gisa ere aritu zen.

Proiektu askotan aritutako gizona da Aitor Vitoria, ia zenbakitzaiz baitira bere lan guz-tiak. Euskal Herrian, adibidez, proiektu ezberdinak egin izan ditu: horien artean, *Amaren etxean*, *Jaun eta jabe*, *Maité* edo *Ertzainak* telesailetan aritu da. Madrilen izan zen garaian, *Malena es un nombre de tango* filmean egin zuen lan zuzen-dari laguntzaile moduan. Ekoiz-pen lana ere burutu zuen *Bajo la piel* filmean. Honekin batera, hamabost film laburretan zuzendariaren laguntzaile izan da tolosarra.



Aitor Vitoria tolosarra, Donostiako Bulebarrean, HITZAREKIN solasean jardun eta gero. N. LATABURU

Gurean, egoera iluna

Kamaren mundua irekia da goen leihoa izanik, hamaika paisaia ikusi du jada Aitor Vitoriak. Bere ametsa, hala ere, Euskal Herriko paisaietan barenna lan egitea izango litzateke. Baina gurean ez da gaur egun ia fikziorako proiekturik aurkeztzen —zinema zein telebistarako—. Aktore onak dau-dela uste du Vitoriak, baina, «hauek ere, teknikariok beza-la, kanpora joatera behartuta daude, Euskal Herrian ez baitago zinemagintza industria-rik».

Eusko Jaurilaritzak kultura-rako orokorrean eta fikziorako zehazki egiten duen inber-

tsioa txikiegia dela azaltzen du tolosarrak, «eta horrela ez dago euskal zinemagintzari buruz hitz egiterik».

Bestalde, Vitoria lasai azal-tzen da etorkizunari begira. Datorren urteak ekarriko di-tuen proiektuen zain dago orain. Gainera, telebistaren eta zinemaren artean aukera-terrik izango balu, bigarrena-rekin geratuko litzatekeela dio, nahiz eta berak bietan asko ikasten duela uste duen. «Zinemagintzak zirko baten itxura hartzen du, leku batetik bestera mugitzen zara, eta ne-kagarriagoa da», aitortu du tolosarrak. ◀

honetan ere zuzendari lagun-tzaile lana betetzen du Aitor Vi-toriak.

Filmaketen plangintza

«Zuzendari laguntzaile lana, gehienbat, filmaldia erritmo egokian burutu dadila lortzea da», azaldu du Vitoriak. Filma-keta bera hasi aurretik, beraz, koordinazio lanak burutzen ditu alor guztietako arduradu-nekin. Bakoitzarekin beharko

duen denbora zehazten du eta filmean parte hartuko dutenen lana moldatzen du. Filmaketa-zehar sor daitezkeen arazoei aurre egiteko erantzunak ere izan behar ditu. Lantalde osoa-rekin lan plangintza antolat-u ondoren, filmaketari hasiera ematen zaio. Epe honetan, lan-taldearekin egon beharko du zuzendari laguntzaileak. «Fil-maketa haserreak izateko eta denei animoak emateko garaia da», esan du tolosarrak.

Pelikula baten filmaketaren iraupena aldakorra da, hau bu-rutzeko dagoen aurrekontua-ren arabera. Denbora, beraz, proportzioan doa diruarekin; izan ere, «gero eta aurrekontu gehiagorekin egin filma, gero eta denbora gehiago izango duzu hau filmatzeko», onartu du Vitoriak. *Aupa Etxebeste* fil-mak, aurrekontu txikia duena, zazpi asteko filmaketa behar izan du.

Honekin batera, Vitoriak bere lanbidearen alderdirik gogorrena denborarekin bo-rrokan aritzea dela aitortu du. Hala ere, alderdi baikorrak ugariagoak direla esan du tek-nikariak. «Filmaketa bakoitzetik zer edo zer ona jasotzen dut, baina denetan sortzen diren harreman pertsonalak az-pimarratuko nituzke».

AZOKA ▶

Oporretatik bueltan aniztasuna nabari da

Oporretan zaindu gabeko landareak berriz ere landatu beharra nabaritu da

PABLO ALBERDI

Egun lasaia izan zen atzo azo-kan. Dirudienez, eguraldi txarrak erosleak berandu jo-atera bultzatu zituen, eta goi-zeko lehenengo orduetan ez zegoen jende asko.

Eskaintza, ordea, oso za-bala izan zen hasieratik, eta berrikuntza garrantzitsuak ikusi genituen. Ehiza eskain-tza, adibidez, atzo hasi zen usoe-kin 5 eurotan saltzen zi-ren, eta, dirudienez, hemen-dik aurrera mantendu egin-go den produktua da. Perre-txiko zerrenda ere oso zabala izan zen. Santu Guztien Egu-na gertu izaki, apaingarriko loreak ere ugari ziren atzo.

AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Inbauurra	3,00	4,50
Pikua	1,80	2,50
Ziazerba	1,00	2,00
Kalabaza	1,50	3,00
Lekak	4,00	-
Arrautzak	1,30	2,10
Irasagarra	3,00	6,00
Artoogia	3,50	-

Produktu ekologikoak

Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,00
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,74	2,01
Letxua	1,01	-
Aza	2,53	4,05
Baratxuria	1,62	7,60
Patata	1,52	-

Berdura plaza

Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Txilarra	4,50	-
Konifera	6,00	-
Geranioa	2,00	-
Alegria	1,00	-
Begonia	1,00	-
Surfinia	2,40	-
Izplikua	4,00	6,00
Azalea	3,50	10,00
Porrua	2,40	-
Perrexila	0,05	0,06

OTEGI erakuntzak, s.l.

Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

bisitegia

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

Zumeta

IÑIGO DOMINGUEZ ▶ REALEKO NESKEN TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Perfekzioa ezin da lortu sekula»

Mailaz igotzea du helburu nagusia taldeak; horretarako, baloia ongi jokatu, atzetik era garbian ekarri eta inizatiba eduki beharko dute jokalariek

MADDI SOROA

Iñigo Dominguezek 25 urte ditu eta Tolosan bizi da. Txiki-txikitatik gustatu izan zaio futbola. Askotan lagunartean jokatzen badu ere, Eskolapioak eta Tolosa CFko jokalaririk izan zen hainbat urtez. Dominguezen ametsa futbolaria profesionala izatea bazen ere, ez zuen lortu. Orain, futbolekit ahalik eta hurbilen sentitzeko, Realeko eskualde mailako nesken taldeko entrenatzaile gisa dabil lanean denboraldi berria hasi zenetik. **Nola iritsi zara Realeko entrenatzaile izatera?**

Lehenik, Tolosa CFko kadete mailan aritu nintzen hiru urtez entrenatzaile gisa. Handik Realera egin nuen salto, bi urtez kadete mailako entrenatu nituelarik. Roberto Olaberri, Realeko kirol zuzendariak, denboraldi berrirako eskualde mailako taldea entrenatzeko proposatu zidan eta nik baiezkoa eman nion.

Nola sortu da nazional mailako nesken taldea sortzeko ideia?

Gipuzkoako futbol elkarte ezberdinen eskariaren ondorioz sortu da taldea, batez ere, nazional mailan nesken taldea zuten elkarteengandik.

Athletic taldea Izarren Ligara iritsi izanak izan al du eragirik taldearen sorreran?

Ez dut uste hori horrela izan denik. Gainera, taldea sortzeko ideia ez da Realarena izan, Gipuzkoako futbol elkarte ezberdina baizik. Eskaria zegoen, eta horren aurrean, Realak eskaintza egin du.

Nola dago osaturik taldea?

19 jokalariz osaturik dago taldea. Gazteenak 16 urte ditu, zaharrenak berriz, 26. Gehienek goragoko mailatan jokatzen zuten: Añorgan, Oiartzunen, Zarautzen, Anaitasunan...

Zein irizpide erabili duzue jokalaririk aukeratzeko?

Bat egindako elkarte guztiek hirutik bost jokalaririk bitarteko



Iñigo Dominguez, Realeko eskualde mailako nesken taldeko entrenatzaile. MADDI SOROA

HELBURUA

«Mailaz igotzea da helbururik nagusia; baita elkarbizitza egokia lortzea izan nahi dugun taldea sortzea... ere»

zerrenda bidali zuten; guztira ehun jokalaririk. Jokalaririk horiek, San Joanetako txapelketan, Zubietako saioetan... egindakoa ikusi, eta aukeraketa egin zen.

Zertan oinarritzen dira entrenamenduak?

Ziur nago hobeto jokatzeko entrenatzen dela, ez azkarragoak izateko. Puntu horretatik abiatzen dira entrenamenduak. Oso zaila da atalak ezberdintzea, entrenamenduak ez dira sailetan bereizten, izan ere, dena erlaxatzen baitago.

Zein helburu lortu nahi duzue denboraldi amaierarako?

Neurtu daitezkeen helburu na-

ENTRENAMENDUAK

«Ziur nago hobeto jokatzeko entrenatzen dela, eta ez azkarragoak izateko; hortik abiatzen dira entrenamenduak»

gusia nazional mailara igotzea da. Ezin dira ahaztu, baina, neurtu ezin diren beste hainbat helburu: ongi jokatzen duen taldea izatea, izan nahi dugun futbol taldea lortzea, elkarbizitza egokia izatea...

Duela gutxi hasi duzue denboraldia, baina zerbait hobetu daitezkeela uste duzue?

Beti hobetu daitezke gauzak. Gaurko gehiengoa beti izango da biharko gutxiengoa. Perfekzioa ezin da lortu sekula.

Zein dira entrenatzaile modura dituzun oinarriak?

Ongi jokaturiko futbola gustatzen zait. Futbola, ezer baino le-

NESKEN FUTBOLA

«Realeko taldea sortu izanak nesken futbola bultzatuko duelakoan nago, hala espero dut behintzat»

hen, joko bat da, eta, beraz, modu bakarra dago ongi jokatzeo. Ongi dago goera, helburuak... edukitzea buruan, baina beharrezkoa da ere, atzera begiratu eta iraganeko futboleko kontzeptuak berreskuratzea.

Nola ikusten duzue nesken futbola gizaratean?

Badirudi apurka-apurka indar handiagoa hartzen ari dela. Athletic-ek hedabideetan izan zuten oihartzunak eragina izango zuen seguraski. Ikusiko da zer nolako garaipenak egin daitezkeen. Realeko taldea sortu izanak ere eragina izango duelakoan nago.

AISIALDIA ▶

Tolosan begirale ikastaroa egiteko aukera dago

Laskorain ikastolak eta Kazkabarra aisialdi taldeak begirale ikastaroa antolatu dute Urtxintxa eskolarekin batera. Tolosan izango dira ikastaroko eskolak; ostiralean, 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara, eta urtebetean lor daitezke titulua. Guztira, 200 orduko ikastaroa izango dela iragarri dute antolatzaileek. Izena asteazkena baino lehen eman behar da, honako telefono zenbakira deituta: 677 489 971.

ERLIJIOA ▶

Katekesi eskolak asteartean hasiko dira Santa Marian

Santa Maria parrokiaren Pastoral urteari hasiera emango diote gaur eukaristia guztiak eginez. Halaxe adierazi dute parrokiako kideek. Bestalde, asteartetik aurrera hasiko dira bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleentzat katekesi eskolak. 18:00etatik 19:00etara izango dute horiek katekesia parrokiako lokaletan. Lehenengo mailako ikasleak, berriz, asteazkenean, hilak 20, hasiko dira katekesian, ordu eta leku berean.

AISIALDIA ▶

Ttentek aisialdi taldean parte hartzeko aukera

Ttentek aisialdi taldeko ordezkariak adierazi dutenez, bertan parte hartu nahi duten haurrek eta gaztetxoek aisialdi taldeak San Frantzisko parrokiaren (Soldadu kalea, 2) duen egoitzara joan behar dute, bihar eta etzi, 18:00etatik 20:00etara. «Gonbita egin den diegu ondo pasatu nahi dutenei guregana etortzeko, askotariko ekintzak egingo ditugulako urte osoan».

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak.

Lanpostu libreak bete behar dira: Hernani, Usurbil, Beasain, Errenteria. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Gidariak. Hamar lanpostu bete behar dira: Arrasate, Zizurkil, Deba, Villabona, Oreta, Antzuola, Legazpi.

Informa zaitetz eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

Ostalariak. Sukaldariak, zerbitzariak, sukalde laguntzaileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurirantz, udaletan, Foru Aldundian eta

ikastetxeetan. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

Ertzaintza. 200 lanpostu bete behar dira. Baldintzak: Eskola agiria. Izen-emate epea zabalik. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

Vital Kutxa. 70 lanpostu libre.

Datozen inkomparazioak. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

Mantenimendua. Arotzak, igeltseroak, elektrizistak, pintoreak eta peoiak. Lanpostu finkoak udaletan. Informazioa doan. Deitu

943 65 01 93 telefono zenbakira.

Udaltzaingoa. 19 lanpostu bete behar dira: Hondarribian, Iruen, Arrasaten, Beasainen, Ordizian, Oiñan, Mutrikan eta Eibarren. Informa zaitetz dohanik. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

IKAZTEGIETA ▶ UGANE AUZOKO JAIK

Baserrien goxotasunean ospatu dituzte jaiak

Bazkaltzeko 100 lagun inguru bildu ziren atzo; auzoko bi baserritan bazkaldu zuten



Jende ugari gerturatu zen hamaiketako egitera. OIER ARANZABAL

O. ESKITXABEL

Ikaztegietatik gora, bi kilometro ingurura aurkitzen da Ugane auzoa; bertako jaiak izan ziren atzo, eguerdian hasi eta gauera bitarte. Euria egin zuela eta bertan behera geratu zen VI. Txirindulari Igoera; ikaztegieta dantzariak eta bertsolariak, ordea, eguraldiari kasurik ere egin gabe, beren emanaldia eskaini zuten.

Bazkaltzeko babesa erraz bilatu zuten auzokideek; bi baserritan mahaiak jarri eta bapozan zuten, su bajuaren berotasunarekin, marmitakoa eta saiheski erre. 100 lagun inguru bildu ziren.

Bazkaltzen hasi aurretik hamaiketako eskaini zuten; bo-

rondatearen truke haragi egozia, salda, txorizoa, mondejua, sagardoa, ardoa... zegoen aukeran: «Lortutako dirua gastuak ordaintzeko erabiltzen dugu», azaldu diote HITZARI auzotarrek.

Bazkaldu ondoren, haurrentzako jolasen txanda iritsi zen; aukeri jokoa, begiak itxi eta txokolata ematearena... egin zituzten.

Ondoren, Santuipekoak taldearen abestiak entzun zituzten auzotarrek. Hainbat auzotarrek atzoko egunerako espreski sorturiko taldea da; Ugane auzoko eta auzotarren inguruko abestiak eskaini zituzten atzokoan. Arratsaldean eta afaldu ondoren eskaini zuten taldeak emanaldia «talde garrantzitsuen antzera».

TOLOSA ▶ SAN ESTEBAN AUZOKO KULTUR ASTEA



Geltokiraino gaiztain bila joan zen Altxorraren bila jokoan parte hartu zuen talde bat. O. ESKITXABEL

Ferialekuan jolasean, helduak eta gaztetxoak

Altxorraren bila, puzgarriak lehertzen, aukeri jokoa... aritu ziren txikienak atzo

OLAIA ESKITXABEL

Auzoko gaztetxoek zuzenduta zeuden San Esteban auzoko Kultur Asteko atzoko ekitaldiak; hala ere, helduentzako zeregina ugari izan zen. Ferialekuan helduak zein gaztetxoak bildu ziren. Batzuk musean jokatzen; joko desberdinak egingen, besteak.

Altxorraren bila hasi ziren lehenengo; lau taldetan banatuta bost gaztina bildu behar izan zituzten lehenengo proban. Nahi horretan, geltoki ingurura gerturatu zen talde bat; esku hutsik, beste nonbaitea abiatu ziren taldekideak.

Nora jo ez zekitenez, kalean, leihotan... zeuden auzotarrei

galdezka aritu ziren talde gehienak.

Arratsaldean zehar jolas gehiago egin zituzten; aukeri jokoa, elitze-itsuak puskatzen eta puzgarriak lehertzen aritu ziren, besteak beste. Amaitzean, gainera, txokolata egin zuten. Gauean, Atila y los Unos taldearen eta DJ Jawata-ren emanaldiak izan ziren auzoko plazan.

Gaur, amaiera

Gaur izango da Ttontor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak antolatutako XVII. Kultur Astearen azken eguna. Auzoko kaleetan txistularien doinuak izango dira entzungai.

EGITARRAUA ▶

GAUR

09:00. Diana herriko txistulariekin.

10:00. Trikitixa auzoko baserrietan zehar.

11:00. Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

12:30. Toka txapelketa gizonzkoentzat eta emakumezkoentzat.

14:30. Auzokide bazkaria. Ondoren, dantzaldia Algara orkestrarekin.

Baserrietara ere iritsiko da jaigiroa trikitilariek auzoko baserrietan baituzte. Algara orkestrarekin dantzaldia egiteko aukera ere izango dute. Horrela amaituko da sei egunez luzatu den Kultur Astea.

Herri Irratia
RADIO POPULAR

TOLOSALDEA
1224 AM | 87.9 FM
99.8 FM | 94.8 FM

TOLOSALDEA GOMAILAKO L. II. INSTITUTUA			
FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat) 2004/05			
KUALIFIKAZIO PROFESIALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOIA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
- Kalkulu-orria (Excel)	30	04-10-25	18-21
- Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	04-10-25	18-21
- Sare lokal baten administratzea (Windows 2000 Server)	70	04-10-25	18-21
- Fresadora konbentzionaleko mekanizazioa	80	04-10-25	18-21
- CAD 2D (AUTOCAD 2004) (Hastapena)	40	04-10-25	18-21
- Finantza kudeaketa	30	04-11-03	18-21
- Adierazpen-sistema aratuak (Marraketa teknikoak)	40	04-11-03	18-21
- Automatismoen elektroteknika	40	04-11-03	18-21
- Oinarriko automatatutako programagarriak (PLC SIEMENS)	35	04-11-22	18-21
- Soldadura elektrikoa	40	04-11-22	18-21
- Torno konbentzionaleko mekanizazioa	80	04-11-22	18-21
- Oinarriko elektrizitatea	30	04-11-29	18-21
- Giza baliabideen kudeaketa	75	04-11-29	18-21
- Ordenagailu pertsonala (Windows)	30	04-11-29	18-21
- Zerbitzu telematikoen aplikazioak (Korreo - Internet)	20	04-12-13	18-21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

www.tolosaldeko hitza.info

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Udalari intsumisioa egitea eskatu du Axurdariok

Ur eta zabor zerga ez ordaintzeko adierazpen-orria sinatzera gonbidatzen ditu herritarrik

I. GARCIA

Lizartzako Axurdario herri plataformak Udalaren aurrean intsumisio jarrera bultzatzeko kanpaina abiarazi du, *Eskubiderik ez betebeharririk ez* leloarekin. Plataformatik herritarrik deitzen dituzte ur eta zaborren zerga ez ordaintzera, «garbi erakusteko ez gaudela lotsagabe nazkagarri hauei herrian nahi dutena egiten uzteko prest», azaldu dute EAJ-EA koalizioari buruz.

Hiruhilabetero egin ohi den ordainketa ez egiteko bi zeregin gauzatzera gonbidatzen dituzte lizartzarrak: «Honetarako espreski prestatu dugun adie-



Adierazpen-orria betetzen. I.G.

razpen-orria bete eta udaletxean aurkeztu» eta, bestalde, «banku bidez ordaintzen den kasutan, banketxera joan eta zerga honi dagokion diru-transferentzia baliogabetu».

Axurdarioko kideak atzo goizean egon ziren udaletxean, bai adierazpen-orriak jasotzeko edo nahi zutenek bertan sinatzeko. Gaur ere udaletxeko areto nagusian izango dira, 12:30etik 13:30era. Bestalde, ekintza honen inguruan edonolako kezka, galdera edo ekarpen dutenei plataformako kideengana jotzeko gonbita luzatu dute.

Joseba Egibar jeltzalea buru den udal batzordeari intsumi-

sio ekintza egiteko arrazoiak zerrendatzen dituzte Axurdariok kaleratutako oharrean. Udal berria osatu zenetik hamabost hilabete igaro dira eta epe horretan «herritarrok dugun erabakitze eskubidea kendu digute», azaldu dute herri plataformakoek, eta gaineratu: «Zentzuzko konponbiderako zeuden aukera guztiak jorratzen saiatu gara. Egibarrek ordezkatzeko duen EAJ-EA koalizioak konponbiderako ate guztiak itxi ditu modurik zikinenean, itxurakerian ibiliz, alegia». Bestalde, Udalak egiten duen kudeaketari buruzko informazioa jasotzeko aukerarik ez dutela salatu dute.

TOLOSA ▶ 'LASA ETA ZABALA AUZIA'

«Alderdi Sozialistak Galindo kaleratu izana» salatu dute

Lasa eta Zabala bahitu eta erahil zituztela hogeita bat urte bete ziren atzo

IMANOL GARCIA

«Ez dugu egutegian begiratu beharrik bihotzean zauri gisa markaturik dugun eguna go-goan izateko: Joxi eta Joxean bahitu, torturatu eta erahil zituzteneko urteurrena betetzen da gaur. Ez Tolosak, ez Euskal Herriak ere ez du inoiz ahaztuko Guardia Zibilak, gerra zikinaren izenean eta Espainiaren babesean, burututako torturak eta erahilketak. Herri honek ez ditu bere semeak ukatuko, ez ditu ekintza hauek ahaztuko ez eta barkatuko». GALek Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosarrak bahitu eta erahil zituzteneko 21. urteurrena gogoratu atzo eskualdeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta egin zuten manifestazioan esandako hitzak dira horiek. Laurehun lagun inguru bildu ziren Tolosako kaleetan. Triangulotik abiatu zen mobilizazioan.



Triangulotik abiatuta egin zuten atzo manifestazioa. I. GARCIA

Bertan salatu zutenek, «bena erantzuleek Galindo askatu dute gaixo dagoenaren aitakipean. Hor da hor presoekin dagoen tratamendu ezberdindua». Manifestazioaren deitzaileek esandakoaren arabera, «erantzukizunak Galindotik haratago doaz, PSOEtik haratago», eta EAJk Alderdi Sozialistarekin egindako gobernu ituna ekarri zuten gogora.

Manifestazioan parte hartu zuten, besteak beste, Batasuneko zenbait kidek, tardean Arnaldo Otegi legebiltzarkideak. Ekitaldiaren hasieran egindako adierazpenetan, Lasa eta Zabalaren bahiketa eta erahilketa gogorarazteaz gain, Alderdi Sozialistaren gobernuak orain gutxi «Galindo jenerala kanpoan utzi» dutela, eta azken aste hauetan tortura ka-

suak «agerikoak» izan direla azaldu zuen. Horren aurrean, hainbat hausnarketa egin zituen Otegi: «Talante berriak naftalina usaina du eta Alderdi Sozialista momentu honetan ez bakarrik Alderdi Popularrarekin, baizik eta estatu itun askorekin hipotekatuta dago».

Otegiaren aburuz, antzinako bideak jorratzeko prest dago Alderdi Sozialista, eta horren ordez gatazka era demokratikoan gainditu behar luke. «Zorritzarrez, Guardia Zibilarekin eta beste botere faktikoekin egindako bidea aukeratzeko badu, parean izango du berriz ere ezker abertzalea, Euskal Herria».

Bestalde, herenegun, urteroko ohiturari jarraituz, omenaldia egin zitzaion Lasa eta Zabalarri bere oroimenez jarritako monolitoan. Lore eskaintza, bertsoak abestu eta ohorezko aureskua dantzatu zieten.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818 Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunerok; etxera banatuta

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzioa Klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Quetglas M.A., Euskal

Herria 46 (Ibarra). 943 673 274.

A. Gimeno, Elbarren 52,

(Leitza). 112.

Bihar. Morant R., Zabalarreta 1

(Tolosa). 943 673 849.

M.I. Larraia, Elbarren 95,

(Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaidea. 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Mercedes Vito 110 CDI.

Hiru urte ditu, egoera onean. Lo

egiteko prestatua, berogailu eta

guzti. Telefonoa: 607 29 38 11.

Etxebizitza. Etxebizitza salgai

Tolosan; berriztatua eta

altzariekin. Garajea aukeran.

Telefonoa: 655 70 61 27.

LANA

Etxeko lanak. Pertsona

euskaldun bat behar da etxeko

lanak egiteko eta bi urte

zaintzeko. Telefonoa: 943 67 54 89 / 656 76 64 39.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. Jubilatutako Eguna: 12:30ean, meza nagusia; ondoren Artea dantza taldearen eta Mikel Mendizabal eta Jon Martin bertsolarien emanaldia. Arandia jatetxean bazkalduko dute; arratsaldeko giroa Xafre eta Zaharrak alaituko dute.

Belauntza. Hilaren 24ko Jubilatutako Egunean parte hartu nahi dutenek, Belauntzako udaleberrera (943674366) edo Uli Mankomunitateko (943682228) telefonoetara dei dezakete hilaren 20a baino lehen izena emateko.

Vilabona. *Euskal Herria aitortu eta errespetatu* lelopean kontzentrazioa, bihar, 20:00etan hasita, Berdura Plazan.

Vilabona. Sukaldaritza errazeko ikastaroa izango da Biltoki elkartearen, Eroskik lagunduta, urritik abendura, asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara. Izena eman daiteke elkarteko bulegoan.

Vilabona. Biltoki jubilatuen elkartearen Gabonetako loterirako eta saskirako zenbakiak salgai daude.

Tolosa. Igandero bezala, Iribarren musika taldeak dantzaldia eskainiko du Harizpe elkartearen 18:30etik 20:30era.

Tolosa. Laskorain ikastolak eta Kazkabarra aisialdi taldeak begirale ikastaroa antolatuko dute Urbixntxa eskolarekin batera. Tolosan, urtebetean egin ahal izango da: ostiraletan 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara. Izena asteazkena baino lehen eman behar da: 677 489 971.

Tolosa. Odol Emaileen elkartearen odol-bankua izango da bihar Kultur Etxean 18:30etik 20:30era.

Tolosa. Ttentek aisialdi taldearen parte hartu nahi dutenek taldeak San Frantzisko



Jubilatuaren Eguna gaur, Amezketan

AMEZKETA ▶ Jubilatuen Eguna ospatuko dute gaur amezketarrek. Hilaren 3an zabaldu zuten herriaren adinekoen egoitza, baina gaur egingo dute eraikinaren irekiera ekitaldi ofiziala. Hala, 11:30ean izango den mezaren ostean hamaiketako eskainiko dute udal ordezkariek adinekoen egoitza berriaren, eta bertan izango dira, giroa alaitzeko, Mañukorta eta Zeberio bertsolariak. Arkupe dantza taldekoek emanaldia eskainiko dute ondoren ohorezko aureskuarekin hasita, eta bazkaritara joango dira jarraian adinekoak. Antolatzaileen aburuz, 100 bat lagun bilduko dira Abaltzisketako Zalbide sagardotegian egingo duten bazkarira, eta bazkalostean ohiko opari banaketa egingo dute jubilatuen artean. Joxe Mari Goikoetxea zinegotziaren hitzetan, «sorpresa» izango dira gaur, eta bazkalostea alaitzeko Xafre eta Zaharra trikitilariak jardungo dute sagardotegian bertan. Bestalde, Ugarten bizi direnekin pentsatuta autobusa jarri dute antolatzaileek adinekoen egoitzara joateko: 12:30ean abiatuko da auzotik. Argazkian, Amezketako jubilatuen iaz, sagardotegi batean. O. ESKITXABEL

billabonatarren koadroak Sorron koadro denda dira hilabetez. Olioak dira eta gai nagusia, hegaztiak.

Tolosa. Ana Gonzalezek lore lehorrez egindako konposizioak ditu ikusgai Saikin tabernan. Hilaren bukaera arte.

KIROLAK

Futbola.
▶ Tolosa CF-Mondragon (Gorengo maila. 16:30, Berazubi).
▶ Amaro K.E.-Usurbil F.T. (Lurraldekako 2. maila. 11:00, Elorri).

Futbol 7.

▶ Ibarra Gatzte Asanblada-Easo Motor (1. maila A. 12:00, Felix Garin 2).
▶ Knauf Decoracion Nuñez-Lanbroa Dickens (1. maila A. 10:00, Beasain 1).
▶ Bar Shanti Kiroiak-Eibartarra Dance Club (2. maila, A. 11:00, Beasain 1).

KULTUR ASTEA

Tolosa. Ttontor, San Esteban Auzokide Elkarteak antolatuta, 09:00etan diana herriko txistulariek; 10:00etan trikitixa auzoko baserrietatik; 11:00etan meza auzoko hildakoen alde San Frantzisko elizan; 12:30ean toka txapelketa gizonetakoentzat eta emakumekoenentzat eta 14:30ean auzokide bazkaria eta ondoren dantzaldia Algara orkestrarekin.

ZINEMA

Tolosa. *Hellboy.* Guillermo del Toro zinemagilearen filma Leidor zinemaren ingurua da ikusgai. Gaur, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; bihar 19:30ean eta 22:30ean; etzi, Ikuslearen Eguna, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

parrokian (Soldadu kalea, 2) duen egoitzara joan behar dute, bihar eta etzi, 18:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Peñascal Fundazioan zabalik da ikasturte berrirako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea: 16-25 urte bitarteko graduaturik gabeko gazteentzat; mailako prestakuntza tekniko; graduatua lortzeko klaseak; lan mundurako irtenbidea. 943 67 61 61.

Tolosa. Santa Maria parrokian Pastoral urteari hasiera emango diote gaur eukaristia guztiak eginez. Bestalde,

asteartean, hilak 19, katekesia hasiko dute bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek 18:00etatik 19:00etara parrokiko lokaletan. Lehenengo mailako asteazkenean hasiko dira, eta ordu berean izango dute eskola parrokiko lokaletan.

Tolosa. *Hiri arrendamentua eta erantzukizun zibila* gai hartuta, bilera informatiboa egingo dute bihar Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkartearen lehen solairuko gelan. 18:30ean hasiko da saioa, eta sarrera dohakoa izango da denentzat.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Maria Luisa Irastorza tolosarrak bere koadroak ditu ikusgai Hernaldeko Ostatu tabernan. Hilabete osoan izango dira artelanak ikusgai.

Ibarra. Gure gurasoek eta aiton-amonek XX. mendearren lehen 50 urteetan landu zituzten ogibideen eta lanbideen erakuskea izango da ikusgai, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara, Benito Izagirre kultur etxean. Hilaren 29a bitarte.

Tolosa. David Barandiaran

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maria Esnaola (Lizartza). Bihar 89 urte. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu handi bat.



URTE ASKOAN
Josefa Galarza Goñi (Amezketan). Gaur 97 urte. Jarrai dezazula horren jator eta polita! Zorionak!

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!